gozkien organoek izendatuko dituzte, haien prozedura-arauen arabera, eta, edozein kasutan ere, indarrean dagoen legediaren arabera.

h) Confebask Euskal Enpresaburuen Konfederakundea ordezkatuko duten batzordekideak bere prozedura-arauen arabera izendatuko ditu, eta, edozein kasutan ere, indarrean dagoen legediaren arabera.

i) Euskal Kooperatiben Elkartea ordezkatuko duen batzordekidea bere prozedura-arauen arabera izendatuko du, eta, edozein kasutan ere, indarrean dagoen legediaren arabera.

j) Nekazaritza-erakunde profesional nagusiak ordezkatuko dituen batzordekidea erakunde profesionalek izendatuko dute, haien prozedura-arauen arabera, eta, edozein kasutan ere, indarrean dagoen legediaren arabera.

AZKEN XEDAPENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean Dekretu hau.

Vitoria-Gasteizen, 2004ko azaroaren 9an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

**Zk-5963**

AGINDUA, 2004ko urriaren 28koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, herritar etorkinen parte-hartze eta integraziorako Foroaren organoen funtzionamendu araudiaren aldaketa argitaratzeko dena.

***Lehenengo artikulua.–*** Herritar etorkinen parte-hartze eta integraziorako Foroaren organoen funtzionamendu araudiari dagokionez, agindu honi eranskin gisa atxiki zaion 2004ko ekainaren 25ean Foroaren Osoko Bilkurak onartutako aldaketa argitaratzeko agindua eman da.

***Bigarren artikulua.–*** Foroaren Lan Batzordeetan parte hartzeko eskaerak Agindu honen eranskinean aurreikusitakoaren arabera egingo dira, agindu hau Eus-

rán designadas o designados por los respectivos órganos de los mismos conforme a sus normas de procedimiento, y en todo caso, conforme a la legislación vigente.

h) Las y los vocales en representación de la Confederación Empresarial Vasca (Confebask) serán designadas o designados conforme a sus normas de procedimiento, y en todo caso, conforme a la legislación vigente.

i) La o el vocal en representación de la Confederación de Cooperativas Vascas, será designada o designado conforme a sus normas de procedimiento, y en todo caso, conforme a la legislación vigente.

j) La o el vocal en representación de las organizaciones profesionales agrarias más representativas será designada o designado por las organizaciones profesionales conforme a sus normas de procedimiento, y en todo caso, conforme a la legislación vigente.»

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 9 de noviembre de 2004.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

**N°-5963**

ORDEN de 28 de octubre de 2004, del Consejero del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales de publicación de la modificación del Reglamento de funcionamiento de los órganos del Foro para la Participación e Integración de las Ciudadanas y los Ciudadanos inmigrantes.

***Artículo primero.–*** Se ordena la publicación de la modificación del Reglamento de funcionamiento de los órganos del Foro para la participación e integración de las ciudadanas y los ciudadanos inmigrantes aprobada por el Pleno del Foro con fecha 25 de junio de 2004, que se acompaña en el anexo a esta orden.

***Artículo segundo.–*** Las solicitudes de incorporación a las Comisiones de Trabajo de conformidad con la modificación del Reglamento de funcionamiento de los ór-

kal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hortik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko urriaren 28a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

ERANSKINA

HERRITAR ETORKINEN PARTE-HARTZE ETA INTEGRAZIORAKO FOROAREN FUNTZIONAMENDU-ARAUDIAREN ALDAKETA

Kontuan harturik Euskal Autonomia Erkidegoko Herritar Etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa sortzen duen abuztuaren 30eko 200/2002 Dekretuaren 12. artikulua eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Osoko Bilkurak 2004ko ekainaren 25eko saioan erabaki zuen antolamendu eta funtzionamendu araudian honako aldaketa hauek egitea.

***Lehenengo artikulua.***– Herritar etorkinen parte-hartze eta integraziorako Foroaren Funtzionamendu Araudiaren 11. artikulua honela idatzita geratu da:

«11. artikulua.– Bilerak.

Batzorde bakoitza urtean lau aldiz bilduko da gutxienez.»

***Bigarren artikulua.***– Herritar etorkinen parte-hartze eta integraziorako Foroaren Funtzionamendu Araudiaren 16.2 artikulua honela idatzita geratu da:

«2.– Lan-bileretara bertaratzea. Urtean segidako bi bileretara edo aldizka hiru bileretara ez bertaratzeak kargutik kentzea ekarriko du, eta Batzordean parte hartzeko eskaeren zerrendako hurrengo kideak ordezkatuko du kargutik kendutako batzordekidea.»

***Hirugarren artikulua.***– Herritar etorkinen parte-hartze eta integraziorako Foroaren Funtzionamendu Araudiaren 19.3 artikulua honela idatzita geratu da:

«3.– Idazkaritza Teknikoak jakinaraziko dio interesatuari Batzordean sartzeko izendatu dutela, eta hala badagokio, bertako kargutik kendu dutela.»

ganos del Foro se recogerán a partir de la publicación de esta Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de octubre de 2004.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

ANEXO

MODIFICACIÓN DEL REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DEL FORO PARA LA PARTICIPACIÓN E INTEGRACIÓN DE LAS CIUDADANAS Y CIUDADANOS INMIGRANTES

De conformidad con el artículo 12 del Decreto 200/2002, de 30 de agosto, por el que se crea el Foro para la integración y participación social de las ciudadanas y los ciudadanos inmigrantes y de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, el Pleno en sesión de fecha 25 de junio de 2004 aprueba las siguientes modificaciones del Reglamento de organización y funcionamiento.

***Artículo primero.***– El artículo 11 del Reglamento de funcionamiento del Foro para la participación e integración de las ciudadanas y ciudadanos inmigrantes queda con la siguiente redacción:

«Artículo 11.– Reuniones.

Cada Comisión se reunirá anualmente, como mínimo, cuatro veces.»

***Artículo segundo.***– El artículo 16.2 del Reglamento de funcionamiento del Foro para la participación e integración de las ciudadanas y ciudadanos inmigrantes queda con la siguiente redacción:

«2.– Asistir a las reuniones de trabajo. La inasistencia no justificada a dos reuniones consecutivas o a tres discontinuas a lo largo del año será causa de cese, siendo sustituido por el siguiente miembro de la lista de solicitudes de incorporación a la Comisión.»

***Artículo tercero.***– El artículo 19.3 del Reglamento de funcionamiento del Foro para la participación e integración de las ciudadanas y ciudadanos inmigrantes queda con la siguiente redacción:

«3.– La Secretaría Técnica comunicará a la persona interesada su incorporación y cese, en su caso, de la Comisión.»